

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Euskararen postposizioak

JAVIER ORMAZABAL

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskararen postposizioak

Postpositions in Basque

JAVIER ORMAZABAL

Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT), Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

javier.ormazabal@ehu.eus

JASOA: 2019/08/02 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/27 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/04

Nire esker onak eman nahi dizkiet lana zuzendu duten bi ebaluatzaile anonimoei, proposatu dituzten iruzkin eta hobekuntza guztiengatik. Lan hau Eusko Jaurlaritzaren Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeari IT1396-19 [Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT)], Espainiako Gobernuaren Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateak Ministerioaren LEPROP (#PGC2018-093464-B-100) eta UPV/EHUREN GIU18/221 talde eta egitasmoen lotua da.

LABURPENA

Erlazio-izenetatik eratorritako postposizio konplexu gehienek bi egitura desberdinetan parte hartzen dute: *etxearen aurrean* / *etxe aurrean*. Hauen desberdintasunetan oinarrituta, gramatikari askok funtzio berezia duten kokapen-izenak direla argudiatu dute; hortaz, lehen egitura genitibo-zko IS bat litzateke; bigarrena, ordea, erlazio-izena ardatzean duen hitz konposatua. Hipotesi honen kontra, postposizio konplexu horiek lekuzko deklinabide-atzizkiekin (*-ra*, *-tik*, etab.) batzea proposatzen dut; hortaz, *etxe aurreanen* egiturak *etxeraren* ezaugarri eta murritzapen berberak (hala nola determinatzailezik gabeko osagarri definituak, bizigabea izatea, etab.) baditu, *etxearen aurreanena* gizonarenganaren parekoa dela argudiatzen dut. Postposizio konplexuen eta soilen arteko desberdintasunak lexikalizazio-prozesu desberdina izatetik deribatu-ko lirateke.

ABSTRACT

Most complex postpositions derived from relational nouns participate in two different structures: *etxearen aurrean* / *etxe aurrean* ('in front of the house'). Based on their differences, many grammarians argue that they are location nouns with a special function: thus, while the former is a genitive NP structure, the latter would be a compound with the relational name as its head. Against this hypothesis, I propose to unify complex postpositions with locative declension suffixes (*-ra*, *-tik*, etc.): from this perspective, the structure of *etxe aurrean* presents the same properties and constraints as *etxera* (e.g. definite complements without determiners, inanimate properties, etc.), while the structure of *etxearen aurrean* parallels that of *gizonarengana*. I also propose that the differences between complex and simple postposition derive from differences in their lexicalization process.

Gako-hitzak: postposizioak; erlazio-izenak; kokapen-izenak; deklinabide-atzizkiak.

Keywords: postpositions; locational nouns; relational nouns; declension suffixes.

1. Sarrera: gaia zehaztuz

Euskal deklinabidearen azterketan ohikoa da atzizkiak sailetan bereiztea. Sailkapenaren irizpideak klaseen arteko desberdintasun morfosintaktiko batzuen gainean eraikiak daude eta, modu lausoan, euren bilakaera historikoarekin lotzen dira (ik. EGLU I; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, §3.2; Santazilia, 2013, 239. or., besteak beste):

(1) Euskal deklinabidea:

Oinarritzko kasuak:

a. Kasu gramatikalak: ergatiboa, datiboa, absolutiboa + genitiboa eta instrumentala

b. Lekuzko kasuak: inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa

Bigarren mailako kasuak: aurrekoen gainean eraikiak

Baina deskribapen gehienetan barneko sailkapen horrek ez du, hala ere, batasun kategoriala zalantzan jartzen: deklinabide-atzizkiak izen-sintagmei atxikitzen zaizkien gramatika-markak dira, sistema bat eta bakarra osatzen dutenak. Tradizio sortzailean, berriz, (1a)-ko kasu gramatikalak alde batetik eta postposizioak, beste guztiak, bestetik bereizten dira maiz (Eguzkitza, 1997; Artiagoitia, 2012; UPV/EHuko Euskara Institutua, 2019). Banaketaren arrazoa oinarritzko kategoria-desberdintasun bat da: honen arabera, lehenak izen-sintagmak (edo determinatzaile-sintagmak) diren bezala, besteak postposizio-sintagmak dira. Tradizio honetan kategoria gramatikalak oinarritzko kontzeptuak izanik, desberdintasun horrek sintaxi-egituran ondorio garrantzitsuak ditu.

Lan honetan (2)-ko *aurrean* eta *gainean* bezalako hitzek sisteman izan dezaketen lekua aztertuko dut:

(2) a. Bizikleta etxe(aren) aurrean dago.

b. Giltzak liburu(aren) gainean utzi ditut.

Deklinabidearen ikuspegi tradizionalan (2)-ko egiturek deklinabidetik at gelditu behar dute, (1)-eko sailkapenaren logikari jarraituz. Gramatika tradizional eta deskriptibo gehienetan (adibidez, Azkue, 1969 [1923-1925], §694; EGLU I, 438. or.; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, §3.3), (1)-eko atzizkiek deklinabide-sistema batu bat osatzen dute; (2)-ko adierazpideek, ordea, postposizioen inbentarioa osatzen dute, gehienetan banaketa horren ondorio sintaktikoak tratatzen ez badira ere. Berriz, gaur egungo joera, diakronisten eta gramatikari batzuen artean, postposiziotzat jo ordez izen-sintagma gisa aztertzea da. Muturreko jarrera Trasken (2013, 208. or.) honako adierazpen hau

da: «There is no real difference between *gizonaren aurrean* ('in front of the man'; lit. 'at the man's front') and *gizonaren etxean* ('in the man's house')». Horretaraino heldu gabe, zenbait hizkuntzalarik gramatikalizazio-bide luzean lehen pausoak egin dituzten *kokapen-izen* (*location nouns*) gisa tratatzen dituzte. De Rijkek (1990, 4. or.) dio izen horiek euskarak espazio-harremanak adierazteko duen baliabide sintaktiko bakarra osatzen dutela. Hau da, bere aburuz, euskaraz ez dago postposizio-kategoriako elementu lexikorik, morfologiaren eremuko deklinabideko atzizki lokatiboak eta sintaxi-mailako kokapen-izenak baizik.

Izenen hipotesiaren alde, de Rijkek eta, bere proposamena hedatuz, Eguzkitzak (1998) eta Hualdek (2002) hainbat ezaugarri begira izen arrunten erara portatzen direla argudiatzen dute: i) IS-barneko izen-ardatzek bezala genitiboak hartzen dituzte (adibidez, (3a-c)); ii) edozein IS arrunti atxikitzen zaizkion atzizkiak atxiki dakizkieke, bai leku/denborazko atzizkiak (3a), baita lokatiboak ez diren bestelakoak ere (3b); iii) asko determinatzaileak (artikulua, erakuslea, etab.) lagunduta agertzen dira eta erabilera erreferentziala dute (3b-d); iv) hitz-konposaketan parte hartzen dute (4); v) osagairik gabe ere ager daitezke (5):

- (3) a. Etxearen aurrean, liburuaren azpitik, etxearen ondora.
b. Etxearen aitzinari/aurreari pintura eman diogu.
c. Kotxearen aurrea/aitzina/azpia konpondu beharra dago.
d. Inguru **hura** arras hondatua zen.
- (4) Etxe aurrean, mahai azpian, liburu gainean, etab.
- (5) a. **Aurrean** katedral berria duzue.
b. **Atzean** utzi zuen bere larrimina.
c. Lorontzi itsusi bat jarri zion **gainean**.

Erlazio-izen hauetarik gehienek, beraz, bi egitura desberdinetan parte hartzen dute (de Rijk, 1990; Hualde, 2002): (6a)-n kokapen-izen ardatza duen sintaxi-egitura konplexua dugu; (6b)-n, berriz, *aurre*, *atze*, etab. ardatz-posizioan duen hitz konposatua, morfologian sortua. (5)-ekoak, beren aldetik, (6a) ISn osagaia ezabatua duten egiturak lirerateke.

- (6) a. Etxearen aurre(an): [[...]_{IS(GENITIBOA)} erlazio-izena]_{IS (INESIBOA)}
b. Etxe aurre(an): [[I + erlazio-izena]_{Izen konposatua}]_{IS (INESIBOA)}

Lan honetan adierazpide konplexu hauek, jatorriz erlazio-izenetik eratorrita bada dira ere, postposizio lokatiboak direla proposatzen dut. Argudiatuko dut hauen eremuan eta leku/denborazko deklinabidearenean *berezitat* hartu ohi diren ezaugarriak batera aztertzen baditugu, hobeto ahoka daitezkeela sistema osoaren piezak. Bigarren atalean argudiatuko dut (5b)-ko *etxe-aurrean* eta bere kideek ez dituztela hitz konposatuaren propietateak erakusten, *etxe-an*, *etxe-ra* eta abarreko atzizkienak baizik¹. Hirugarren atalean (5a)-ko *etxearen aurrean* egiturek *lagunarengan*en pareko propietateak dituztela

¹ Ideia hau ez da guztiz berria: SEGen antzeko ideia sumatzen da, proposamena garatzen ez bada ere. Eguzkitzak (1998) ere aukera hori aipatzen du, nahiz eta azkenean de Rijken proposamenera jotzen duen.

erakutsiko dut. Aurreko bi puntuetatik atera dezakegun ondorioa da bi multzoek leku/denborazko postposizio lexikoen multzoa osatzen dutela. Laugarren atalean berranalisi-prozesuen inguruko eztabaida labur baten ondoren, leku/denborazko postposizio soilen eta konplexuen arteko desberdintasunak aztertuko dira, ihartze-prozesuan garapen-fase bakoitzari lotuta daudela proposatuz. Eztabaidan beste hizkuntzen konparaketa txertatzen dut han-hemenka argigarri gisa, baina espazio-mugek ez dute analisi tipologikorako aukera ematen. Zeharka bada ere, (1)-eko sailkapenaren berrantolaketak kasu gramatikalen eta postposizio lexikoen arteko muga sendotzen du, gaur egungo sintaxi sinkronikoaren bidetik; aldi berean, postposizioen kategoriari kategoria lexiko irekiaren izaera aitortzen zaio.

2. Genitiborik gabeko egitura biluziak

2.1. Ez dira hitz konposatuak

Genitiborik gabeko egitura (6b) hitz konposatua bada, de Rijk (1990) dioen bezala, oso konposatu berezia da. Lehen hurbilketa batean bi osagaien erlazioa hitz konplexuena iruditu arren, ezaugarri gehienek morfologian ez baina egitura sintaktiko baten aurrean gaudela erakusten dute.

Hasteko, hizkuntza guztietako morfologiaren oinarritzko propietate bat hitz konplexuaren barneko osagaien erreferentzialtasun falta da: hortaz, (7a)-ko izen-sintagman *etxearen* osagaiak *etxe* ale zehatz bati erreferentzia egiten badio ere, (7b)-ko hitz konposatuaren lehen izenak, *etxek*, tipo-interpretazio generikoa (normalean plurala) adierazten du beti. Erreferentzialtasun falta hori hitz konposatuaren lehen osagaiak perpaus barneko izenordainen edo beste edozein erlazio anaforikoren aitzindari-lana egiteko duen ezintasunean ikus daiteke.

- (7) a. Etxearen saltzailea etorri da; leku onean erosiko duzue.
b. Etxe saltzailea etorri da; #leku onean erosiko duzue (= etxeak; plural generikoa)

Berriz, (8)-ko *zubi* edo *kobazulo* izenek entitate definituei erreferentzia egiten diete beti; hortaz, bigarren esaldiko subjektu isilaren aitzindariak izan daitezke. Are gehiago, interpretazio hori definitua izateaz gain, singularrekoa ere bada (9).

- (8) a. Kobazulo barruan sartu gara; estalaktitaz beteta du sabai osoa.
b. Zubi azpitik gurutzatuko dugu, baina edozein momentutan eroriko dela dirudi.
c. Bulego atzean aparkatu dut.
(9) Etxe azpian: 'etxe zehatz baten (sing.) azpian'

Ez hori bakarrik; kokapen-izenaren aurrean ageriko izenik ez dagoenean ere, isileko izen erreferentzial definitu bat dagoela interpretatzen da (de Rijk, 1990, 8. oh.; Etxepare, 2013; ik., halaber, 4. atala):

- (10) a. Azpitik igarotzen ari ginela bat-batean erori zen.
b. Lorontzi itsusi bat jarri zion gainean; bere xarma guztia galdu zuen.

Kontuan izan, gainera, ezkerreko elementuak era guztietako osagaiak onartzen dituela bere ezkerrean: izenordainak edo IS konplexuak genitiboan (11a) eta erlatibozko perpausak (11b), besteak beste:

- (11) a. Nire etxe ondoan; mendi altuenaren punta gainean...
b. Iaz konpondu genuen etxe aurrean plaza bat eraikitzen ari dira.

(11a)-n *nire* izenordainak edo *mendi altuenaren* sintagma *etxe* eta *punta* modifikatzen dute hurrenez hurren. Azken bi puntu hauen ondorio logiko bakarria da *ondoa* edo *aurreanen* ezkerrean atxikia dagoena *ez dela izena (etxe, mendi)* baizik eta izen hori ardatz duen izen-sintagma osoa. Berriz, hitz konposatuekin ager daitezkeen osagaiak izen osoa modifikatzen dute nahitaez; inoiz *ez* hitz elkartuaren lehen osagaia:

- (12) a. [Iaz ikusi genuen etxe]_{IS} *aurrean* eraikin berri bat egin dute.
b. [[Iaz ikusi genuen] *etxe-saltzailea*]_{IS} erretiratu da / *berreraiki dute.

Are gehiago, ebaluatzaile batek ohartarazi didanez, interpretazioaz gain, (11)-koen prosodia ere hitz konposatuez bestelakoa da (ik. 4. atala).

Bestalde, osagarria sintaktikoki konplexua izanda ere, genitiborik gabeko izenak ez du determinatzailerik edo erakuslerik onartzen (Hualde, 2002):

- (13) a. *iaz konpondu genuen etxea aurrean
b. *mendiko punta hori gainean, *zubi hau azpitik

Hori da egitura hauei hitz konposatu itxura ematen dien ezaugarri nagusia. Baina, euskarazko determinatzaileak nonahikoak izan arren, hitz-konposaketa ez da testuinguru bakarria non ezin ager daitezkeen, hurrengo atalean eztabaidatuko denez.

Literaturan dagoeneko aipatu den bezala, genitiborik gabeko egitura hori ez-bizidunekin erabil daiteke bakarrik; bizidunek, berriz, (2)-ko egitura genitiboduna eskatzen dute nahitaez (EGLU I, 443. or.; Hualde, 2002):

- (14) a. Amaren ondotik ~ *ama ondotik
b. Lagunaren aldera ~ *lagun aldera

Biziduna/bizigabea inflexio-morfologiako eta sintaxiko hainbat lekutan ikus dezakegun bereizketa bada ere, ez da hitz-morfologiaren ohiko murriztapen bat. Hitz konposatuko osagaia, interpretazio generikoa duena, izen arrunt bizigabea zein biziduna izan ohi da, (14)-ko adibideekin kontrastatuz²:

- (15) a. Behi-erosle, haur-heziketa, ama-bilaketa...
b. Laguntasun, amatasun, jendetsu...

² De Rijckek (1990, 6. or.) aipatzen du salbuespenak badaudela (ik. *testigu aurrean, neska atzean*, etab.) baina, berak dioen bezala, horiek duten berezitasuna ez da bakarrik izen bizidunak direla, egitura hauen interpretazioaren kontra ez-erreferentzialak ere baitira. Halaber, ikusi postposizio soiletan ohiko *medikura, abokatura*, etab. Aurrekoetan bezala, hauetan ere izena generikoa da (ik., halaber, *epaile aurrean*).

Gorka Elordietak (Hualdek [2002] jaso) ohartarazi duenez, koordinazioa ezinezkoa da:

(16) *Etxe eta gaztelu aurrean

Honetan ere, egitura horiek hitz konposatuetatik aldentzen dira. Izan ere, euskararen hitz-konposaketaren ezaugarri bat da hitz elkartuaren ezkerreko posizioan mugatzaile bat baino gehiago koordinatu daitezkeela, batez ere ikertzen ari garen egituren mota berekoak lirerateken mendekotasunezko errokoetan:

(17) a. Liburu- eta disko-azoka
b. Esne- eta arrautza-saltzaile

Atal hau itxi baino lehen aipatu behar dut badirela egitura hauen bi propietate de Rijken (1990) hitz konposatuaren alde egin lezaketenak. Alde batetik, de Rijkkek iradokitzen du egituran ez dela adjektiborik onartzen, ezta, oro har, izenaren eskuinean ager daitekeen elementurik ere.

(18) *Etxe eder/handi aurrean

Halaber, ohartarazten digu euskararen hitz-mailako morfologiaren bereizgarriak diren prozesu morfo-fonologiko zenbaitez, batez ere apokopeaz:

(19) itsas(o) ondoan, eliz(a) aurrean

Fenomenoaren hedadura norainokoa den ikusi beharko litzateke, bere adibideen ondoan ez baitirudi *hizkuntza/hizkuntz* edo *baso/basa-* horren naturalak direnik testuinguru berean, baina egia da trunkamendua hitz-eremuko fenomeno tipikoa dela. Inkorporazio sintaktikoa egoteak azal litzake bi murriztapenak agian, baina puntu honetan ez dut azalpen argirik ikusten. Dena den, osotasunean hartuta, atal honetan zehar emandako propietateek egitura hauen jatorria morfologiak sortutako hitz konposatuak ez direla ondorioztatzeko arrazoi sendoak dirudite.

2.2. Postposizio konplexuak eta leku/denborazko kasuak

Egia esan, ikuspuntu semantikotik *etxe aurre(an)* egituran bi osagaien artean elkartuetan dagoen mugatzaile-mugakizun erlazio bera dagoela esatea hitz konposatuaren barneko erlazio semantiko posibleak asko zabaltzea da (ik. Etxepare, 2013, 60-64. or.). *Kokapen-izen* horiek bi elementuren arteko *irudia/hondoa* (*figure/ground*) harremana adierazten dute beti, non *irudia* (*lertxuna* (20a) adibidean) hondoarekiko espazio-erlazio zehatz batean kokatzen den. Ikuspuntu semantikotik, beraz, (*-ren*) *aurrean* adierazpideek leku/denborazko deklinabidearen lan berbera betetzen dute:

(20) Lertxuna_{irudia} [Zadorra gaineko zubi]_{hondoa} **aurrean/-an** gelditu da.

Hori ez da berria; egitura hauek tratatu dituzten ia guztiek parekotasuna aipatzen dute modu batera edo bestera, baina gehienek ustez, baliabide hauek semantikoki antzekoak izan arren, sintaktikoki zeharo desberdinak lirerateke.

Atal honetan argudiatuko dut, parekotasun semantiko orokorrez gain, bi estrategia hauek murriztapen berberak dituztela baita morfologian eta syntaxian ere. Zehazkiago,

orain arte eztabaidatutako propietate morfosintaktiko eta semantiko berezi gehienak deklinabide lokatiboaren singularreko berezitasunekin bat datozela defendatuko dut. Konpara ditzagun banan-banan euskal deklinabidearen barruan leku-atzizkiei multzo berezi gisa tratatzeko atxikitzen zaizkien ezaugarri aipatuena postposizio konplexuen egitura *biluziaren* portaerarekin.

Hasteko, ezaguna da leku/denborazko atzizkiak deklinabidean ageriko determinatzaierik gabe agertzen diren bakarrak direla. Baina (21)-eko adibideen interpretazioak erakusten duen bezala, izen-erroarekiko lotura zuzena posiblea da bakar-bakarrik mugatu singularreko formekin, hain zuzen ere postposizio konplexuetan ikusi dugun testuinguru berebean³. Deklinabidearen beste kasu guztietan mugatasuna eta singularitasuna zehazten dituen morfema batek markatzen badu ere (22a), hauetan determinatzailea agertzea ezinezkoa da (22b-c):

(21) [Herri atzeko ibai]-*ra/ondora* goaz bainatzera. Arrainez betea dago.

(22) a. Etxeari, zubiarentzat, ibaiarekin...

b. *Etxeara, *zubiatic, *bidearaino...

c. *Etxea ondoan, *zubia gainean, *ibaia azpian...

Horri gehitu behar zaio deklinabide osoan bizidun/bizigabe alternantzia ageri duten atzizki bakarrak direla (23a-b), horretan ere postposizio konplexuekin (24) bat eginez.

(23) a. Etxera, zubitik, zubiraino...

b. *Aitonara, *lagunetik, *emakumeraino...

(24) a. Etxe ondotik, zubi aldera...

b. *Aitona ondotik, *lagun aldera, *emakume aurrean...

Azkenik, singularrean koordinaziorik onartzen ez duen deklinabideko atzizki-multzo bakarra da:

(25) a. *Herriko udaletxe eta plazan

b. *Etxe eta gaztelu aurrean

c. Herriko udaletxe eta enparantzari/enparantzarekin/enparantzarentzat

Ondorioz, genitiborik gabeko egitura biluzien ezaugarri nagusiak leku/denborazko atzizki soilenak berak dira, eta ez hitz-konposaketan espero genituzkeenak.

³ De Rijk mugagabearekin ere osa daitekeela dio, baina Ereduzko Prosa Gaur corpusean (Sarasola, Salaburu, Landa & Zabaleta, 2009), hainbat adibide daude *EHUko zenbait arazoren aurrean*, *hainbat gatazkaren aurrean* eratakoak eta bat ere ez egitura biluzian. Izan ere, *EHUko zenbait arazo aurrean*, *hainbat harri azpian* eta horrelakoek markatuak dirudite. Badira postposizio bakan batzuk mugagabea onartzen dutenak; adibidez, *zenbait aste barru*, etab. posibleak dira. Ohar bedi, hala ere, postposizio hauek lexikoki ezohikoak direla beste hainbat ezaugarri begira. Adibidez, zenbatzaileak eta kuantifikatzaileak onartzen dituzte ez bakarrik izenaren aurretik, baizik eta ondotik ere: *egun asko/batzuk barru*. Ostera, espero litezkeen euren pareko genitibozko egiturak ez dira batere arruntak: **egun askoren/batzuen barru*. Gainera, lokatiborik gabe agertzen diren bakarrenetakoak dira.

3. Osagaiak genitiboan eta atzizki lokatiboak

Genitibozko egiturara (26c) itzuliz, konpara dezagun hizkuntzalariek orokorrean eta diakronistek bereziki (26a-b) bezalako egiturei ematen dieten tratamenduarekin:

- (26) a. Amarekin, amarentzat...
- b. Amarengan, amaren bait(h)an...
- c. Amaren aurrean, amaren ondoan...

Ikuspuntu historikotik ikerlari guztiek *-ekin* edo *-(en)ga(n)* egitura konplexuagoetatik datozela argi badute ere, gutxik esango lukete gaur egun egitura konplexuak direla, nahiz eta azpian genitiboa mantendu. Hizkuntzalari gehienek (26a)-koak deklinabide-atzizki edo postposizio soil gisa hartzen dituzte. (26b)-koan lausotasun-maila handiagoa suma daitekeen arren, lan gehienetan bizidunentzako deklinabideko leku/denborazko atzizki gisa tratatzen dira besterik gabe⁴, eta pentsa daiteke gehienek esango luketela oinarrian barne-egiturarik gabeko forma ihartuak direla. Arrazoi berberetatik, oinarrian *-(en) aurrean* eta bere kideak berdin analiza daitezke.

Bestalde, (26)-ko egiturak interesgarriak dira bakoitza bere modura. (26a)-ko *-ekin* kasuan badago nolabaiteko adostasuna ardatza *kide* izena zuen egitura batetik datorrela, Schuchardtek (1947) proposatu bezala:

- (27) *-(r)e-kin* < **-(r)e* (= gen. zaharra) + *kide-n* ('en compañía de') (Michelena, 1972, 297. or.)

Bilakaera hori adibide ona da IS konplexu bat nola lexikalizatzen den argitzeko, barneko elementuek autonomia sintaktiko eta semantiko guztia galdu, klitizatu eta azkenean postposizio gisa berranalizatu arte. Bestelakoa da (26b)-ko *-(en)ga(n)* kasua; Jacobsenen (1977, 166. or.) *gan(e)* ('leku altua', 'gorena') izan ezik, proposatzen diren etimologia gehienek (ik. de Rijk, 1981; Trask, 2013; Manterola, 2015 eta erreferentziak) ez dute izen bat inon ikusten, beste kategoria bat baizik, eta hala ere genitiboa agertzen zaigu. Hori hala bada, genitiboa berez ez da izen baten presentziaren bermea ez diakronikoki, ez eta sinkronikoki ere. Kasu-markak ez dira aditzen eta izenen ezaugarriak bakarrik: hizkuntza askotan adposizioek ere kasu-erregimen zehatza dute osagarriarekiko, eta hondo txertatzeko modu arrunta genitiboa edo bere kidea da askotan. Erromantzearen preposizio askoren etimologiaren azpian, adibidez, kokapen-izenak eta adberbioak daude, eta gehienetan *de* bat dago tartean (ik. Portilla, 2012; ik., halaber, finlandierazko (35) adibidea azpian). Halaber, lexikalizazio-bidean dauden preposizio konplexuak hizkuntza askotan genitiboaren pareko preposizioak lagunduta daude, asko adberbioetatik etorri arren.

- (28) Gazt. *desde*_{Prep} < lat. *de* ('-tik') + *ex* ('kanpo') + *de* ('-en') (ik. gazt. *desde fuera de*)
- (29) Gazt. [*delante*_{adb} (*de*)]_{Prep/Adb}; *enfrente de*; *encima de*; fr. [*en face* (*de*)]_{Prep} ('-en aurrean/kontra'): *en*_{Prep} ('-n') + *face*_{Izen} ('aurpegia') *de*_{Prep}

⁴ Beste postposizioekiko antza aipatu izan da inoiz. Ik., besteak beste, Santaziliaren (2013, §6.4.2.1) eztabaida.

Laburbilduz, aurreko atalean eta honetan ikusitako propietateak harturik, ez dirudi (30a) eta (30b)-ren artean diferentzia estruktural handirik dagoenik; bietan egitura konplexu batetik datorren iharturiko adierazpide bat dugu, hondoa biziduna duten espazio-harremanak adierazteko baliabide bakarra⁵:

- (30) a. [Etxean gelditu zen anaia]-ren ondoan/atzean/gainetik...
 b. [Etxean gelditu zen anaia]-ren gan/bait(h)an, gana...

4. Berranalisia eta lexikalizazio-prozesua

Hualdek (2002, 326. or.) aztertutako prozesu hauek gramatikalizazio teorian kokatzen ditu, Hopper eta Traugott (2003) *noun-to-affix cline* prozesuaren honako bertsio egokitua proposatuz:

Many postpositions are indeed at least diachronically —in many cases transparently— related to nouns and provide evidence for a grammaticalization path that ultimately leads from free noun form to inflectional suffix (the «noun-to-affix cline» of Hopper & Traugott 1993: 106-108). In our case, we would have something like the following: Regular noun form > noun acquires specialized idiomatic relational usage > progressively, nominal properties are lost > case suffix

Sistema honen barruan, Hualdek interpretatzen du kokapen-izenek, nahiz eta izen arrunten aldean egoera desberdinean egon, izen lexikoak izaten jarraitzen dutela; berriz, deklinabide-atzizkiak gramatikalizazio-prozesu osoa burutu duten atzizkiak lirateke. Hau da, gramatikalizazioa *continuum* bat osatzen duen prozesu gisa interpretatu beharrean (Heine, 2002; Brinton & Traugott, 2005, besteak beste), Hualderen zatiketan tarteko aldaketek ez dute egituraren berranalisia eragiten. Bestela esan, aldaketa-prozesuaren une bakoitzean kategorizazio diskretua dagoela onartzen ari dela dirudi. Ikuspuntu sortzailetik horrek zentzu osoa du: une zehatz bakoitzeko hiztunentzat egitura ez da aldatzen ari; ondorioz, ikertzailearentzat aldaketaren zantzuak badaude ere, hiztunak, hizkuntz kateari analisi sintaktikoa ezartzean, susmabide horiek albo batera edo bestera interpretatu behar ditu, edo besterik gabe, kontuan ez hartu. Hortaz, hizkuntz kateak

⁵ Hizkuntzetan ohiko da leku- eta denbora-erlazioak adierazteko baliabideak berberak izatea. Honetan ere euskarazko deklinabide-atzizkiak eta postposizio konplexuak ez dira desberdinak.

(i) a. Gure bileraren ostean; zazpi egunen aurretik...

b. Zazpi egunetan; igandetik...

Bien kasuan, egitura biluzia ezinezkoa da oro har eta bietan baliabide alternatibo baten beharra dago: kasu batean genitiboaren mugagabea eta bestean lekuzko atzizkiaren eta bere osagarriaren artean «mugagabea» markatzen duen *ta* morfema:

(ii) a. Zazpi egun*(en) ondoren

b. *Zazpi aste*(ta)ra

Egitura biluzia bietan singularrari dagokiola kontuan izanda, murriztapen honen arrazoia izan daiteke denborazko egiturek hondoan epea mugatzen duten neurri-sintagmak eskatzen dituztela, singularra ezinezko eginez.

erlazio-izena buru duten IS gisa kategorizatzen dira (31a) edo bestela gramatikalizazio-prozesu osoa egina duten kasu-atzizkiak izatera heldu dira (31b):

- (31) a. [[Etxea]_{IS(genitiboa)} aurre]_{IS(inesiboa)}
 b. [Etxea]_{IS(inesiboa)}

Baina, ikusi dugun egoera konplexuaren aurrean, (31)-k sistemaren irudi sinpleegia deskribatzen duela dirudi. Goian jasotako gramatikalizazio-prozesuarekin bat datorren deklinabide-sistema bakunak kategorien aldakortasunerako uzten duen maniobratze-ko tartea txikiegia da. Horren ordez, elkarren jarraipena izan dezaketen baina prozesu desberdinak osatzen dituzten honako bi aldaketa-kateak berezi behar direla dirudi⁶:

(32) Izen-sintagmen berranalisia:

• **Izen-sintagma arrunta** >

Izenak adiera idiomatikoa hartzen du > erreferentzialtasuna falta; inflexioa galtzen/ihartzen da (ik. genitiboa); batzuetan unitate prosodikoa aldatzen da, klitikoa/atzizkia bihurtuz >

> **lexikalizazioa**: izen-sintagmaren zati ihartu osoa berranalizatzen da eta ondorioz **postposizio** edo **adverbio lexiko bihurtzen da**.


(33) Postposizioen berranalisia:

• **Postposizio arrunta** >

Bere eremu semantikoa hedatuz doa > muga semantikoak lausotzen dira eta zuritzen doa > postposizio propietateak galtzen doaz >

> **gramatikalizazioa**: kasu gramatikal (kategoriarik / esanahi lexikorik gabeko markatzaile) **bihurtzen da**, eta berau atxikia daraman sintagma IS/DetS gisa berkategoriizatzen da.

Hualdek bezala, tarteko aldaketak prozesu bat gertatzen ari delako seinale gisa interpretatzen ditut, ez uneko hitzunek osagaia berranalizatuz kategoria-aldaketa ondorioztatzeko arrazoi gisa, baina bi prozesuak guztiz bereizten dira. Ondorioz, analisi sinkronikoan lehia ondoko hiru analisisien artean datza.



⁶ Bitxia bada ere, de Rijk euskaraz postposiziorik ez dagoela argudiatzen duen arren, aldi berean (32) bezalako bila-kaera diakronikoa proposatzen du bizidunen lokatibozko *ganentzat* (de Rijk, 1981).

Campbellek (2013 [1998], 274. or.) finlandieraz atzizki lokatiboa duen izen-sin-tagmaren berranalisi berbera proposatzen du postposizio lokatiboen sorrerarako, eba-luatzaile batek ohartarazi duen bezala.

- (35) miehe-n rinna-lla
 gizon-GENITIBOA POSTP-ADESIBOA
 < miehe-n rinna-lla
 gizon-GENITIBOA bular-ADESIBOA (= kasu lokatibo bat)
 ‘gizonaren ondoan’ < ‘gizonaren bularrean’

Berranalisi hau buruan, berrazter ditzagun de Rijkek (1990) eta Hualdek (2002) erlazio-izenen aldeko hipotesia babestearen aldera aipatzen dituzten lokatiboen eta postposizio konplexuen arteko desberdintasunak, erreferentzialtasunarekin hasiz. La-bur-labur, Etxeparek (2013, §4) luze eztabaidatu duen argumentu nagusiaren ondorioak hemengo proposamenaren argira berrikus ditzagun. De Rijkek dio adierazpide hauetako gehienek erabilera erreferentziala dutela eta maiz determinatzailearekin eta ISri dagoz-kion kasu-markekin agertzen direla:

- (36) a. Inguru hura arras hondatua zen.
 b. Etapako lehen gainari ekin aurretik...
 c. Padura kirastuak eta haien azpi lohitsuak estali.

Aurreko ataleko eztabaidan ikusi bezala, postposizioen bi multzoak egoera desberdinean daude ihartze-mailan: *-an/-ra* eta beste leku/denborazko atzizki soilen osagaia erabat urturik dauden arren, *aurrean* multzoko postposizio lexikoak sortzean erreklutatu diren elementuek bizirauten dute elementu lexiko soil gisa. Ondorioz, postposizioen osagaiez gain izen erreferentzial arruntak ere izaten jarrai dezakete. Espero zitekeenez, jatorrizko erabileran sail bereko izen lexikoek dituzten propietate arrunt berberak dituzte. Izan ere, Etxeparek (2013) euren erabilera erreferentzialak esanahiaren aldaketa sotil bat sortzen duela erakusten du, bi egiturek oso espazio desberdina zehaztuz. Esan bezala, postposizio konplexuek bi guneren arteko espazio-erlazio bat adierazten duten bezala, bere adiera erreferentzian *aurre*, *albo*, *inguru*, *azpi* izenek espazio gune bat, azalera bat, adierazten dute. Hortaz, bigarrenak era guztietako atzizkiekin konbina daitezke, izen arrunten distribuzio berbera izanez. Berriz, postposizio lokatiboak atzizki lokatiboekin bakarrik ihartu dira. Ondorioz, atzizki lokatibodun egitura anbigua da.

- (37) a. Etxearen aurrea (= fatxada)
 b. Etxearen aurrean (= fatxadan / etxearen aurreko pareta ondoan gelditzen den eremuan)

Etxeparek bi egiturak desanbiguatze moduak ere ematen ditu. Beraz, adjektibo baten bidez modifikatzen denean edota pluralean jartzean interpretazio erreferentziala gailentzen da:

- (38) a. Etxearen aurre hondatuan
 b. Etxearen/etxeen aurreetan

Erlazio espazialeetan bai irudia, bai eta hondoa ere kontzeptu pluralak izan daitezke, baina euren arteko erlazio espaziala bera ez da ez singularra, ez plurala, eta postposizio lokatibo konplexua ezin daiteke pluralean ihartuta egon, espero dugunez.

Goian aipatu bezala, ebaluatzaile anonimo batek hitz-konposaketa hizpidera ekarri du, eta, berak dioen bezala, erreferentziadun izen hauekin hitz konposatuak sor daitezkeenean, bai interpretazioa, bai prosodia, baita adjektiboekin modifikatzeko aukerak ere nabarmen desberdinak dira bertsio lokatiboen aldean:

- (39) a. Iaz konpondu genuen etxeurrean fisura bat agertu da.
- b. Ateondo handi bat zeharkatu eta...

Bestalde, postposizio konplexuen artean badira interpretazio erreferentziala onartzen ez dutenak (Etxepare, 2013):

- (40) *Hango arteak meharregi ematen du.

Hori ere espero daiteke. Postposizio berrien sorreraren iturri nagusia erlazio-izenak badira ere, badira beste iturri posible batzuk. Hori gertatzen denean, bertsio erreferentziala eman dezakeen izenik ez dago.

Itzul gaitezen, bukatzeko, osagarririk gabeko egituretara. Esan bezala, postposizioaren osagarria agerian ez dagoenean hondoa testuinguruaren arabera interpretatzen da (ik. de Rijk, 1990; Etxepare, 2013 eta erreferentziak):

- (41) (Zure) aurrean jarriko naiz.

Isildutako hondoa testuinguruak lagunduta berreskuratu behar da, baina erlazio anaforikoak mantentzakeela eta, batez ere, jabetza-datiboa bezalako egituretan parte har dezakeela ikusirik (de Rijk, 1990, 8. oharra), postposizioaren aurreko hutsuneak izaera sintaktikoa duela pentsa daiteke.

- (42) a. Aurrean jarriko naiz ondo estaltzeko/babesteko.
- b. Norbait aldamenean eseri zitzaion.

Edozein kasutan ere, baldin badago gramatikaren atal bat non adberbioak eta adposizioak kategoria berean sartzea justifikatuta dagoen, hori (41)-(42) bezalako bikoteen eremua da. Jackendoffi (1972) jarraituz, adberbioen eta postposizioen arteko desberdintasun nagusia aditz iragankor/iragangaitzen parekoa dela argudiatu izan da askotan; ikuspuntu horretatik, bi egitura horiek *gaineanen* sarrera lexiko bereko bi bertsioak lirateke; honetan ere euskara ez da berezia. Bestalde, leku-atzizkiekin hori ezinezkoa bada, aldameneko izenari klitizaturik agertzen direlako izan daiteke ziurrenik.

5. Ondorio gisa

Postposizio konplexuak eta atzizki lokatiboak kategoria bereko postposizio-multzo irekia osatzen dutela ondoriozta dezakegu, lehenak ihartze-prozesuan atzizkiak baino pausu bat atzerago daudelarik. Kategoria berean sartuko lirateke, halaber, Hualdek (2002) aztertzen dituen beste postposizioak, erdiko bidean nonbait kokatuta. Ikuspuntu ho-

rretatik, interesgarria da de Rijkek (1990, 9. or.) aipatzen duen *pean hibridoaren* kasua. Berak *pean* atzizkia dela baina,aldi berean, erlazio-izena ere badela dio. Berez, bere hipotesiaren barruan horrelakorik egotea ezinezkoa izatea esperoko genuke. Atzizkiaren deskripzioan, bizigabeekin erabil daitekeen atzizki gisa definitzen badu ere, egokiagoa litzateke genitiborik gabeko egitura biluzian bakarrik ager daitekeen atzizkia dela pentsatzea: lehen murriztapena postposizioaren propietate morfologikotik deribatzen da; ez alderantziz. Forma honek ez du adiera erreferentzialik (ik. Etxepareren [2013, §2.4] *azpi/behe* oposaketari buruzko eztabaida interesgarria) eta, ondorioz, ezin daiteke lokatiboa ez den testuinguruetatik kanpo agertu, klitizazioan bere kideak baino haratago heldu den atzizki batengandik espero zitekeen bezala.

Ondorio hauek bat datoz gaur egungo sintaxi sinkronikoan, arrazoi estruktural eta semantikoak direla medio, egiten den banaketarekin. Hemen emandako argudioek berresten dute deklinabideko kasu gramatikalen eta postposizioen artean bereiztea ez dela taxonomia hutsagatik egindako banaketa, oinarritzko kategoria desberdintasun garrantzitsu bat baizik: lehenak IS/DetS gisa tratatu behar dira; besteak, ordea, postposizioa ardatza duten sintagmak. Lan honek horri gehitzen dion ekarpen nagusia postposizioena multzo irekia osatzen duen kategoria lexiko bat dela pentsarazteko arrazoiak ematea da.

Erreferentziak

- Artiagoitia, X. (2012). Genitive case and multiple checking in Basque. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalizations in Basque* (209-242. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Azkue, R. M. (1969 [1923-1925]). *Morfología vasca. Gramática básica dialectal del euskera*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Brinton, L. J. & Traugott, E. C. (2005). *Lexicalization and language change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Campbell, L. (2013 [1998]). *Historical linguistics: an introduction* (3. argitalpena). Edinburgh: Edinburgh University Press.
- De Rijk, R. P. G. (1981). Euskal morfologiaren zenbait gorabehera. In Hainbaten artean, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (83-101. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- De Rijk, R. P. G. (1990). Location nouns in standard Basque. *ASJU*, 24, 3-20.
- Eguzkitza, A. (1997). Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea. *Hizpide*, 15, 39-52.
- Eguzkitza, A. (1998). Adnominals in the grammar of Basque. In I. Turrez, A. Arejita & C. Isasi (arg.), *Studia philologica in honorem Alfonso Irigoien* (83-88. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Etxepare, R. (2013). Basque primary adpositions from a clausal perspective. *Catalan Journal of Linguistics*, 12, 41-83.

- EGLU I = Euskaltzaindia, 1987.
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika lehen urratsak (EGLU) I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Heine, B. (2002). On the role of context in grammaticalization. In I. Wischer & G. Diebold (arg.), *New reflexions on grammaticalization* (83-102. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Hopper, P. J. & Traugott, E. C. (2003). *Grammaticalization*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hualde, J. I. (2002). Regarding Basque postpositions and related matters. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (325-340. or.). Bilbo: UPV/EHU-Gipuzkoako Foru-Aldundia.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (arg.). (2003). *A grammar of Basque*. Berlin: De Gruyter.
- Jackendoff, R. (1972). *Semantic interpretation in Generative Grammar*. Cambridge: MIT Press.
- Jacobsen, W. H. (1977). The Basque locative suffix. In W. A. Douglass & R. W. Etulain (arg.), *Anglo-American contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao* (163-168. or.). Reno: University of Nevada.
- Manterola, J. (2015). *Euskararen morfologia historikorako: artikuluak eta erakusleak / Towards a history of Basque morphology: articles and demonstratives* (doktoresia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Michelena, L. (1985 [1972]). Etimología y transformación. In *Lengua e historia* (296-308. or.). Madril: Paraninfo.
- Portilla, M. (2011). El origen de las preposiciones en español. *Filología y Lingüística*, 37, 229-244.
- Santazilia, E. (2013). Noun morphology. In M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction* (223-281. or.). Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Sarasola, I., Salaburu, P., Landa, J. & Zabaleta, J. (2009). Ereduzko prosa gaur [datu-basea]. <https://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/helbidetik/eskuratua>.
- Schuchardt, H. (1947). *Primitiae linguae vasconum*. Salamanca: CSIC.
- Trask, R. L. (2013). *The history of Basque*. Cambridge: Routledge.
- UPV/EHUko Euskara Institutua (2019). *Sareko euskal gramatika (SEG)*. www.ehu.es/seg helbidetik eskuratua.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613